

Donostian, 2025eko maiatzaren 30ean

Gurasoak, agur:

2025-2026 ikasturterako liburuak eskuratzeko ikastolak abian jarriko duen prozeduraren berri ematera gatozkizue.

Ikasturte honetan hainbat liburu **maileguan lortzeko aukera** eskainiko dizuegu eta gainontzekoak ere ikastolaren bitartez erosi ahal izango dituzue, bertan eskaera eginez. Horretarako jarraibideak eta hainbat argibide azaltzen dizkizuegu segidan.

MAILEGU ZERBITZUA

Mailegu zerbitzuarekin **helburu hirukoitza daukagu**:

- Familiei ikasturte hasierak eskatzen dien aurrekontua arintzea.
- Ikasleak materialen kontserbazioan eta zaintzan ohitzea.
- Inguruarekiko errespetuan eta kontsumo arduratsuan heztea.

Maileguan uzten diren liburuak beheko taulan agertzen zaizkizue. Sistema honek familiei 29 € eta 140 € arteko aurrezpena ekartzen dizue, ikasmailaren arabera.

IKASMAILA	MAILEGUAN UZTEN DIREN LIBURUAK	AURREZPENA
LH 3	LH 3 -BUDDY 3- STORYBOOK PACK (3 story books + 2 comics)	29 €
LH 4	LH 4 -EKI- LENGUA CASTELLANA 4 (PACK) LH 4 -EKI- ENGLISH 4 (PACK) LH 4 -EKI- INGURUNEA 4 (PACK) LH 4 -EKI- DIZIPLINARTEKO KOADERNOA 4 (PACK)	117 €
LH 5	LH 5 -EKI- LENGUA CASTELLANA (PACK) LH 5 -EKI- ENGLISH (PACK) LH 5 -EKI- INGURUNEA (PACK) LH 5 -EKI- MATEMATIKA (PACK) LH 5 -EKI- DIZIPLINARTEKO KOADERNOA (PACK)	131 €
LH 6	LH 6 -EKI- LENGUA CASTELLANA LH 6 -EKI- ENGLISH LH 6 -EKI- INGURUNEA LH 6 -EKI- MATEMATIKA LH 6 -EKI- DIZIPLINARTEKO KOADERNOA UDA BAT SENEGALEN	140 €

Maileguko liburu hauek gelan egongo dira eta irakasleak ikasleei banatuko dizkie behar dutenean.

Mailegu sistemak lan eta ardura batzuk dakarzkigu denoi:

- **Idazkariak eta irakasleak** mailako ikasle guztientzat liburuak erosi, identifikazio kodea jarri, banatu, jaso eta gainbegiratu dituzte, eta horrez gain ordainketa sistema kudeatuko dute.
- **Ikasleak** maileguan hartutako liburuak zainduko dituzte, orrialdeak tolestu eta zimurtu gabe. Bertan ez dute idatziko edota marrazkirik egingo, ezta pegatinarik jarriko ere.
- **Gurasoak** maileguko liburu bakoitzeko liburuaren salneurriaren %33,33a ordainduko duzue. Hain zuzen ere, orriaren azpiko aldean doakizuen liburuen zerrendan adierazten den kopurua, bertan aurrezpena kontutan hartuta dago eta. Bestetik, komenigarria da

ikasmailako **familia guztiek mailegu sisteman parte hartzea**, maileguan eskaintzen diren liburu **guztiak** eskatuz, bestela oso zaila baita ikastolarentzat sistema kudeatzea eta kontrolatzea.

- **Liburuen egoera baloratzea:**

Ikasturte amaieran guraso elkarteak izendatutako talde batek egingo du liburuen balorazioa. Liburu bat itzuliko ez balitz edo baldintza onargarrietan ez dagoela baloratuko balitz, salmenta-prezioaren diferentzia ordaindu beharko luke familia horrek.

LIBURU ETA MATERIAL ZERREDA:

Ikasmaila honi dagokion zerrenda eta eskaerak egiteko azalpenak zirkular honen azpiko aldean aurkituko dituzue eta nahi izanez gero ikastolako web orrian ere bai.

Zerrenda horretan "BERRERABILGARRIA" zutabea "BAI" azaltzen bada, aurreko ikasturtean beste ikasleren batek erabilitakoa liburu edo materiala eskuratu dezakezuela esan nahi du. "EZ" azaltzen bada, liburu edo material berria eskuratu beharko duzue.

Zerrenda horretan "SALMENTA/MAILEGUA" zutabea "SALMENTA" jartzen duen kasuetan, liburu edo material hori ikastolan salgai egongo da, baina kanpoan eskuratzeko aukera ere izango duzue. "MAILEGUA" azaltzen bada, esan nahi du ikastolak liburu hori maileguan eskainiko duela. Norbaitek liburu erosi nahiko balu, ikastolatik kanpo eskuratu beharko luke.

"MATERIALA" jartzen duenean, berriz, material hori gelan izango dute eta ezinbestekoa da eskaera ikastolan burutzea inprimakia beteaz. Hortaz, derrigorrez ikastolan eskuratu beharreko materiala honoko hau da:

EUSKARA. MATERIAL DIDAKTIKOA

HATZ10

ARKATZA, BOLALUMA, BORRAGOMA, TXORROSKILOA, KOLA, GORAIZEAK, ERREGELA, KONPASA, ESKUAIRA, KARTABOIA ETA ANGELU-GARRAIAGAILUA

LIBURUEN ETA MATERIALEN ESKAERA EGITEKO PROZEDURA:

1. Mezu honekin batera doakizuen inprimakia bete **ekainaren 6a** baino lehen. Ikastolak ez ditu bideratuko data honetatik aurrerako eskariak
2. Ikastolaren bidez eskuratu nahi dituzuen liburu eta material guztietan "BAI" aukera sakatuta inprimakia bidali ondoren, zuek emandako helbide elektronikora mezu bat iritsiko zaizue. Bertan agertuko dira zuek eskatutako liburu eta material guztiak, guztira ordaindu beharreko kopuruarekin. **Irailean** ondorengo kontu korrontean egin beharko duzue diru kopuru zehatz horren sarrera:

KUTXABANK ES96 2095 5206 0710 6122 6782

Azalpenean IKASLEAREN IZENA – LIBURUAK - MAILA jarri mesedez.

3. Liburuak irailean banatuko ditu tutoreak. Jaso ahal izateko bankuko ordainagiria aurkeztu beharko duzue.

LIBURU ITZULKETAK:

Ikastolak ez ditu irailaren 15a ondoren itzulketak onartuko.

MESEDEZ, ERRESPETA ITZAZUE EPEAK

Besterik gabe, agurtzen zaituztegu

ZUZENDARITZA

IKASTURTEA	IKASMAILA	ARGITALETXEA	LIBURUA	ISBN	BERRERABILGARRIA	SALM/MAILEG	SALNEURRIA
2025/2026	LH5	MATERIALA	EUSKARA. MATERIAL DIDAKTIKOA (ikastolan emango zaie)			MATERIALA	20,00
2025/2026	LH5	IKASELKAR	LH 5 -EKI- LENGUA CASTELLANA 5 (PACK 3)	978-84-1675-267-6		MAILEGUA	14,40
2025/2026	LH5	IKASELKAR	LH 5 -EKI- ENGLISH 5 (PACK 3)	978-84-1675-268-3		MAILEGUA	14,40
2025/2026	LH5	IKASELKAR	LH 5 -EKI- INGURUNEA 5 (PACK 3)	978-84-1675-270-6		MAILEGUA	14,40
2025/2026	LH5	IKASELKAR	LH 5 -EKI- MATEMATIKA 5 (PACK 3)	978-84-1675-269-0		MAILEGUA	14,40
2025/2026	LH5	IKASELKAR	LH 5 -EKI- DIZIPLINARTEKO KOADERNOA 5 (PACK 3)	978-84-1675-265-2		MAILEGUA	7,85
2025/2026	LH5	IKASELKAR	LH 5 -EKI- INGURUNEA - JARDUERA FITXAK 5	978-84-1675-264-5	EZ	SALMENTA	9,27
2025/2026	LH5	IKASELKAR	LH 5 -EKI- MATEMATIKA - JARDUERA FITXAK 5	978-84-1675-263-8	EZ	SALMENTA	9,27
2025/2026	LH5	IKASTOLEN ELKARTEA	HATZ10 (ikastolaren bidez eskuratu behar da)			MATERIALA	5,00
2025/2026	LH5	MATERIALA	ARKATZA, BOLALUMA, BORRAGOMA, TXORROSKILOA, KOLA, GORAIZEAK, ERREGELA, KONPASA, ESKUAIRA, KARTABOIA ETA ANGELU-GARRAIAGAILUA (ikastolan emango zaie)			MATERIALA	6,00
2025/2026	LH5	MATERIALA	PLASTIKOZKO KARPETA SINPLEA, ETXERAKO LANAK MOTXILAN ERAMATEKO. (ikastolan ez)		BAI		
2025/2026	LH5	MATERIALA	KARPETAK, TXIRULA, KALKULAGAILUA ETA KOADERNO HANDIA. Aurreko ikasturtekoak erabiliko ditugunez ikastolan gordeko ditugu.				

LIBURU ESKAERA: LH 5